

**AGIRRE / LEIZAOLA ERBESTEKO LEHENDAKARIEI OMENALDIA
HOMENAJE LEHENDAKARIS EN EL EXILIO AGIRRE / LEIZAOLA**

2019-12-15 Gernika 15-12-2019

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Carlos Garaikoetxea, José Antonio Ardanza, Juan José Ibarretxe, Patxi Lopez Lehendakariok; 1979garren urteko eta egungo herri agintari eta ordezkariok; Aguirre Lehendakariaren eta Leizaola Lehendakarien senitartekok; jaun andreok, egun on eta ongi etorriak izan zaitezte.

Eskerrik asko egun berezi honetan gurekin izateagatik.

Gaur Gernikan elkartu gara Jose Antonio Aguirre eta Jesus María Leizaola lehendakariak omentzeko. Horrekin batera, Leizaolak duela 40 urte etxeratu arte, Eusko Jaurlaritzak erbestean Euskadiren alde **egindako lana gogoratu eta aitortzen dugu.**

Duela 40 urte Leizaola Lehendakaria Euskadira itzuli zen, guztira 42 urte luze erbestean eman ondoren. Aldez aurretik, Jose Antonio Aguirre Lehendakariak ere erbestera atera behar izan zuen duela 80 urte eta erbestean hil zen.

Euskaditik urrun, egoera zailenetan, Eusko Jaurlaritza bizirik mantendu zuten bi Lehendakariak omentzen ditugu gaur eta gure esker ona adierazten diegu.

Izan zirelako gara...

Jesus Maria Leizaola fue nombrado responsable de las carteras de Justicia y Cultura en el primer Gobierno del Lehendakari Jose Antonio Aguirre. Un Gobierno plural en el que participaron Partido Nacionalista Vasco, Partido Socialista, Unión Republicana, Acción Nacionalista Vasca, Izquierda Republicana y Partido Comunista.

Tras el golpe de estado y la Guerra Civil, el Gobierno partió al exilio. Leizaola pasó la mayoría de estos años en París. Padeció la Segunda Guerra Mundial y entre los años 1941 y 1944 vivió escondido en Betharram.

Tras el fallecimiento de Eliodoro de la Torre, en 1946, Leizaola se hizo cargo de la cartera de Hacienda y, en 1960, asumió la Presidencia del Gobierno Vasco tras fallecer el Lehendakari Aguirre. La muerte de Aguirre fue un duro golpe institucional, político y también personal.

La distancia y el exilio hacían mella en un Gobierno Vasco que se encontraba en situación de gran debilidad. En estas circunstancias, el compromiso y la

tenacidad del Lehendakari Leizaola fueron determinantes para **mantener vivo el Gobierno Vasco** y encendida la llama del Pueblo Vasco también desde el exilio.

En 1974, arriesgando su seguridad, realizó una visita clandestina aquí, a Gernika, para participar en el Aberri Eguna. Fue un gesto de reivindicación y protesta cargado de simbolismo y emoción para todo el Pueblo vasco que hoy, nuevamente, reconocemos.

Jose Antonio Aguirre lehenik eta Jesus Maria Leizaolak ondoren, garairik zailenetan ere, Eusko Jaurlaritza bizirik mantendu zuten, **etenik gabe, beti etorkizunari begira**.

Erbesteratuak izan arren, Eusko Jaurlaritzak herritarren beharrei erantzuten jarraitu zuen: gaixoak, presoak eta errefuxiatuak artatuz lehenengo urteetan; eta euskal nortasuna, kultura eta hizkuntza bizirik mantenduz urte luzetan.

Ez hori bakarrik, urterik beltzenetan, Herri honek itxaropena gal ez zezan ezinbesteko heldulekua bilakatu ziren. Etorkizunean sinisten jarraitzeko erreferentzia bakarra eta eraginkorra izan zen erbesteko Eusko Jaurlaritza gure Herri osoarentzat.

Lehenengo Bartzelonan eta ondoren Parisen kokatu zuen Gobernuak Aguirre Lehendakariak. Handik gidatu zituen errefuxiatuen beharrak asetzeko aterpetxe, eskola eta ospitaleen sorrera eta mantenua.

Ondoren, 1940ko maiatzean, alemaniarren erasoak Belgikan harrapatu zuen eta urtebete ezkutuan igaro ondoren Ameriketara heltzea lortu zuen. Orduan, New York-en izan zuen bizilekua bigarren mundu gerra amaitu zen bitartean.

Urte haietan aliatuen zerbitzura jarri zituen bere baliabide guztiak; garaipenaren ondoren, mendebaldeko demokraziek Espainian demokrazia berrezartzen lagunduko zutelakoan. Ez zen horrelakorik gertatu. Hala eta guztiz ere, Aguirrek eta bere Gobernuak **ez zuten etsi** eta barruko zein erbesteko euskal herritarren batasunari eusten eta diktaduraren kontra borrokatzen jarraitu zuten.

Jose Antonio Aguirre 1960an hil zen Parisen eta Donibane Lohitzunen datza lurperatua. Ez zuen inoiz Euskadira itzultzerik lortu, baina etsipenean inoiz erori gabe, gure Herriaren arima bizirik mantendu zuen beti. Berari eta bere belaunaldiari esker garena gara gaur.

El 15 de diciembre de 1979, hoy hace 40 años, el Lehendakari Leizaola regresó a Euskadi tras 42 años de largo exilio. Fue recibido con emoción y reconocimiento por miles de personas. **Leizaola, persona humilde, laboriosa y tenaz**, se sumó al compromiso por la recuperación de los Derechos Históricos del Pueblo Vasco y nuestro Autogobierno.

Duela 40 urte erbestetik itzuli eta Leizaola Lehendakariak hemen Gernikan esandako hitzak entzungo ditugu...(AUDIO)

Irauntza. Erbestean eta erbestetik gure Herriak iraun zezala lortu zuten.

El exilio fue una realidad larga y dura para el Gobierno Vasco. También para las familias que les acompañaron, para sus hijos e hijas.

Parte de estas familias se encuentran aquí en Gernika y reciben nuestro homenaje y reconocimiento emocionado.

Hoy, además, todas las personas presentes tenemos un recuerdo muy especial con quienes tuvieron que exiliarse hace ocho décadas y **nunca pudieron regresar a Euskadi.**

Todas estas personas cuentan con nuestro más sincero agradecimiento y, de alguna forma, su recuerdo se encuentra en los brazos extendidos del Árbol de Gernika.

Este es un homenaje a la familia del Gobierno Vasco en el exilio, Lehendakari Agirre y Leizaola, junto a todos sus Consejeros:

Juan Ramon Aldasoro Galarza
Juan Astigarrabia Andonegi
Jesús Ausín Arakistain
Santiago Aznar Saratxaga
Manuel Campomanes
Manuel Carabias Aldecoa
Leandro Carro Hernández
Enrique Dueñas Zaballa
Sergio Etxeberria Zubeldia
Ambrosio Garbisu Pérez
Paulino Gómez Beltrán
Francisco Javier Landaburu Fernandez de Betoño
Jose María Lasarte Arana
Telesforo Monzón Ortiz de Urruela
Juan Gracia Colás
Juan Iglesias Garrigós
Mikel Isasi Gabilondo
Gonzalo Nardiz Bengoetxea
Carlos Pérez Carranza
Joseba Rezola Arratibel
Eliodoro de la Torre Larrinaga
Juan de los Toyos González
Martín Ugalde Orradre
Fermín Zarza Tardaguila

Recordamos, en especial, a Alfredo Espinosa, Consejero de Sanidad en representación de Unión Republicana. Tras participar en la evacuación de los

niños tuberculosos de Gorliz, en su viaje de regreso fue traicionado por el piloto, apresado y fusilado el 26 de junio de 1937.

En el Congreso Mundial Vasco celebrado en París, en septiembre de 1956, un Lehendakari Agirre emocionado leyó la carta que Espinosa le escribió dos horas antes de ser fusilado. Una carta que os invito a escuchar a continuación... (AUDIO)

Un ejemplo de honestidad, integridad y compromiso para nuestro Pueblo.

En las situaciones más extremas, mantuvieron intactas sus convicciones, sus valores e ideales; su vocación de servicio a Euskadi y el compromiso irrenunciable con la pluralidad, la democracia y la libertad.

Hoy les rendimos un merecido homenaje y mostramos nuestra gratitud por su enorme sacrificio y servicio al Pueblo Vasco. Nos comprometemos a mantener viva su memoria, seguir su ejemplo y fortalecer su legado.

Su visión y compromiso con el **modelo de construcción progresiva del Autogobierno vasco** fue un acierto cargado de lucidez. Este ha sido y es nuestro modelo para seguir construyendo Euskadi en el día a día, todos y cada uno de los días, juntos.

Hoy Euskadi honra a quienes fueron siempre conscientes de la importancia de mantener viva la institución del Gobierno Vasco. Conscientes del significado del legado de **Derechos, Democracia y Libertad** que representaba la continuidad del Gobierno en el exilio.

Jose Antonio Aguirre Lehendakaria eta Jesus Maria Leizaola Lehendakaria, agur eta ohore!

Gaur hemen, Eusko Lur gainean zutunik, Gernikako zuhaizpean, gure esker ona adierazi nahi diegu euskal gizarte osoaren izenean.

Harrotasunez diogu gure Herriaren historia indartu, handitu eta goratu egin zutela.

Euskadiren memorian merezimendu osoz dagokien **ohorezko lekua izango dute beti.**

Izan zirelako gara; garelako izango dira.

Eskerrik asko!